



AKTA/ ACTA

Espediente zbk.	Kide Anitzeko Organoa
OSB/2025/4	Osoko bilkura
BILKURA EGITEKO DATUAK	

Deialdi mota:

Arrunta

Data:

2025eko ekainaren 24a.

Iraupena:

19:00tik 19:30ra arte.

Lekua:

Udalbatza aretoa

Lehendakaria:

ENETZ EZENARRO ARRIOLA

Idazkaria:

NEREA ETXARRI UBEDA

BILKURARA BERTARATZEA		
Identifikazio zenbakia	Izen-abizenak	Bertaratuta
72581191E	Amaia Urrea Mardaraz	EZ
72579288M	Borja Rodriguez Barreras	BAI
15378752D	Dorleta Lazarobaster Arakistain	EZ
15386270Y	ENETZ EZENARRO ARRIOLA	BAI
15391365H	Nerea Isasi Bedayo	BAI
15375878X	Olatz Bizkarguenaga Iñarraiaregui	BAI
15394255X	Sonia Garcia Raposo	BAI

Idazkariak organoa balioz eratu dela egiaztatu ondoren, lehendakariak bilkurari hasiera eman dio, eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak eztabaidatu ditu.

A) ERABAKI ZATIA
Urgentziaz adierazpen instituzionala gehitzea
Ekainak 28, LGTBIQ+ Kolektiboaren Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren Nazioarteko Egunaren inguruko adierazpen instituzionala gai ordenean barneratzea ahobatez adosten

Mendaroko Udala

Herriko enparantza, 1, Mendaro. 20850 (Gipuzkoa). Tfnoa. 943033282. Fax: 943033281





da.	
Aurreko bilkuraren aktaren onarpena	
Alde/ Favorable	Bozketa mota/ Tipo de votación: Ahobatezkotasuna/Onespena/ Unanimidad/Asentimiento

Ebazpena/ Resolución:

Maiatzaren 27ko bilkuraren akta ahobatez onartzen da.

306/2025 espedientea. Kontratazioak .Ostatu eta jubilatuen egoitza	
Alde/ Favorable	Bozketa mota/ Tipo de votación: Ahobatezkotasuna/Onespena/ Unanimidad/Asentimiento

Egitateak eta zuzenbideko oinarriak/ Hechos y fundamentos de derecho:

Batetik, MENDAROKO OSTATU/KULTUR KAFE ETA JUBILATUEN EGOITZA BERRIA EGOKITZEKO obrak egiteko obra-proiektuaren edukia aztertu da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.	De una parte, se analiza el contenido del proyecto de obras de ACONDICIONAMIENTO DEL NUEVO CAFÉ DE MENDAROKO/KULTUR KAFE ETA JUBILATUEN EGOITZA BERRIA, a los efectos previstos en el artículo 28 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.
Udaleko zerbitzu teknikoen gainbegiratze-txostena ikusi da. Bertan, txostenaren alderdi teknikoak eta jarduketa horren bideragarritasuna zehazten dira, eta dagokion obra-proiektuan nahitaezko edukia jasotzen da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 233 artikulua arabera.	Visto el informe de supervisión de los servicios técnicos municipales. En él se detallan los aspectos técnicos del informe y la viabilidad de esta actuación, y en el correspondiente proyecto de obra se recoge el contenido preceptivo, de acuerdo con el artículo 233 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.
Bestetik, kontuan hartuz Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, organo honek beharrezkotzat jotzen duela MENDAROKO OSTATU/KULTUR KAFE ETA JUBILATUEN EGOITZA BERRIA EGOKITZEKO PROIEKTUAN jasotako lanak egiteko kontratua izapidetzea.	Por otra parte, teniendo en cuenta que, a los efectos previstos en el artículo 28 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, este órgano considera necesaria la tramitación del contrato para la realización de las obras incluidas en el PROYECTO DE ACONDICIONAMIENTO DEL NUEVO CENTRO DE TRABAJO DE MENDAROKO OSTATU/KULTUR KAFE ETA JUBILATUEN EGOITZA BERRIA.
Udaleko zerbitzu teknikoen txostena ikusi da.	Visto el informe de los servicios técnicos





<p>Txosten horretan, txostenaren alderdi teknikoak zehazten dira, bai eta jarduketa horren bideragarritasuna ere, eta dagokion obra-proiektuan jasotzen dira lizitazio arautuko duten baldintza teknikoen agiriak.</p>	<p>municipales. En dicho informe se detallan los aspectos técnicos del informe, así como la viabilidad de dicha actuación y se recogen en el correspondiente proyecto de obra los pliegos de condiciones técnicas que regirán la licitación.</p>
<p>Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, kontratu hau alde zuzenaz izapidetuko da eta konpromiso kredituen bidez 2026rako urteanitzeko kreditua baimenduko da. Horrela, dagokion kontratua finantzatu behar duten baliabideak benetan finkatzeko baldintza etengarriaren mende jarriko da esleipena.</p>	<p>De conformidad con lo dispuesto en la disposición adicional tercera de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, el presente contrato se tramitará con carácter previo y se autorizará crédito plurianual para 2026 mediante créditos de compromiso. Así, la adjudicación se someterá a la condición suspensiva de fijación efectiva de los recursos que deban financiar el correspondiente contrato.</p>
<p>Udal honetako idazkari-kontuhartzaileak egindako txosten juridikoa eta fiskalizaziokoa aztertu da.</p>	<p>Visto el informe jurídico y de fiscalización emitido por el Secretario-Interventor de este Ayuntamiento.</p>
<p>Espedienteko gainerako agiriak ikusi dira.</p>	<p>Vista el resto de la documentación del expediente.</p>
<p>Ikusita, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoaren arabera, Osoko Bilkura dela kontratazio-organoa eskuduna.</p>	<p>Visto que, de conformidad con lo previsto en la Disposición Adicional Segunda de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, el órgano competente para la contratación es el Pleno</p>
<p>Kontuan hartu da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 231. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa.</p>	<p>Considerando lo dispuesto en los artículos 231 y siguientes de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público</p>
<p>Ebazpena/ Resolución:</p>	
<p>LEHENENGOA.- "OSTATU/KULTUR KAFE ETA JUBILATUEN EGOITZA BERRIA EGOKITZEKO PROIEKTUA onartzea, 738.622,93 euroko aurrekontua duena, MAIDER OTALEK aurkeztutakoa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 231. artikuluan eta</p>	<p>PRIMERO.- Aprobar el "PROYECTO DE ACONDICIONAMIENTO DE OSTATU/KULTUR KAFE ETA JUBILATUEN EGOITZA BERRIA, con un presupuesto de 738.622,93 euros, presentado por MAIDER OTAL, a los efectos previstos en los artículos 231 y siguientes de la Ley 9/2017, de 8 de</p>





<p>hurrengoetan aurreikusitako ondorioetarako</p> <p>BIGARRENA.- Udal Zerbitzu Teknikoek zuinketa-akta egitea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 236. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.</p> <p>HIRUGARRENA.- OSTATU/KULTUR KAFE ETA JUBILATUEN EGOITZA BERRIA EGOKITZEKO PROIEKTUAN aurreikusitako lanak egiteko kontratua prozedura irekiaren bidez kontratatzeko espedientea onartzea. Lizitaziorako oinarritzko aurrekontua 738.622,93 eurokoa da (% 21eko BEZa barne), eta balio zenbatetsia: 610.432,17 €-koa. Exekuzio epea, berriz, 8 hilabetekoa izango da.</p> <p>LAUGARRENA.- Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorritik, kontratu hau aldeztu aurretik izapidetuko da, konpromiso kredituen bidez 2026rako urteanitzeko kreditua baimenduko da eta dagokion kontratua finantzatu behar duten baliabideen benetako finkapena eteteko baldintzapean jarriko da esleipena.</p> <p>BOSGARRENA.- Kontratazioa arautuko duten administrazio-klausula zehatzen agiriak eta baldintza teknikoaren agiriak onartzea.</p> <p>SEIGARRENA.- Kontratu hau esleitzeko prozedura irekitzea, prozedura irekiaren bidez, eta dagokion iragarkia udal honetako kontratatzailearen profilean argitaratzeko agindua ematea, hogeita sei eguneko epean lizitatzailleek euren eskaintzak aurkez ditzaten.</p> <p>ZAZPIGARRENA.- Alkateari ahalmena ematea tramiteko izapideak egin ditzan.</p>	<p>noviembre, de Contratos del Sector Público.</p> <p>SEGUNDO.- Levantar acta de replanteo por parte de los Servicios Técnicos Municipales a los efectos previstos en el artículo 236 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.</p> <p>TERCERO.- Aprobar el expediente para la contratación por el procedimiento abierto del contrato para la realización de las obras previstas en el PROYECTO DE ACONDICIONAMIENTO DE OSTATU/KULTUR KAFE ETA HOGAR DEL JUBILADO. El presupuesto base de licitación es de 738.622,93 euros (21% IVA incluido) y su valor estimado es de 610.432,17 €. El plazo de ejecución será de 8 meses.</p> <p>CUARTO.- De conformidad con lo dispuesto en la disposición adicional tercera de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, el presente contrato se tramitará con carácter anticipado, se autorizará crédito plurianual para 2026 mediante créditos de compromiso y se condicionará la adjudicación a la suspensión de la fijación efectiva de los recursos que deban financiar el correspondiente contrato.</p> <p>QUINTO.- Aprobar los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas que han de regir la contratación.</p> <p>SEXTO.- Abrir el procedimiento de adjudicación del presente contrato, por el procedimiento abierto, ordenando la publicación del correspondiente anuncio en el perfil de contratante de este Ayuntamiento, para que en el plazo de veintiséis días los licitadores puedan presentar sus ofertas</p> <p>SÉPTIMO.- Facultar al Alcalde para la realización de los trámites de tramitación.</p>
--	--





309/2025 espedientea. Kreditu-aldaketak

Alde/ Favorable	Bozketa mota/ Tipo de votación: Ahobatezkotasuna/Onespena/Unanimidad/Asentimiento
------------------------	--

Egitateak eta zuzenbideko oinarriak/ Hechos y fundamentos de derecho:

Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, konpromiso kreditu modalitatekoa, 2025-KALD006 zenbakiduna.

Ikusita Idazkari kontu-hartzaileak idatzitako txostenen arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 22 artikuluan ezarritakoarekin.

Ebazpena/ Resolución:

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, konpromiso kreditu modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

PROIEKTUA	PARTIDA	URTE A	ZENBATEK OA
OSTATU/KULTU KAFE ETA JUBILATUEN EGOITZA BERRITZEA	0240.622.02.337.10 2026	2026	589.885€
	GUZTIRA		589.885€

Bigarrena.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu ondoren jendaurrera azalduko da hamabost egunetan; epealdi horretan interesatuek aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote. Epealdi horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsizat joko da.

123/2025 espedientea. Kontratazioak. eguneko zentroa

Alde/ Favorable	Bozketa mota/ Tipo de votación: Ahobatezkotasuna/Onespena/Unanimidad/Asentimiento
------------------------	--

Egitateak eta zuzenbideko oinarriak/ Hechos y fundamentos de derecho:

Erabilera-anitzeko landa eremuaren (Eguneko Zentroa eta 3 babesutako apartamentuak) erabilera eta kudeaketaren Zerbitzuaren Emate Kontratua dagokio, aurreko kontratuaren epemuga heldu delako Kontuan hartuta kontratu honen izaera Zerbitzuak ematea dela, 1+1 urteko iraupenarekin eta prozedura IREKIAREN bidez. Lizitazio elektronikoa izango da, eta	Considerando que procede la licitación del Contrato de Prestación del Servicio de uso y gestión del Centro Rural Polivalente (Centro de Día y 3 paratamentos tutelados) por vencimiento del contrato. Teniendo en cuenta que la naturaleza de este Contrato es la Prestación de Servicios, con una duración de 1+1 años mediante procedimiento ABIERTO. Será una licitación
--	--





esleipen-irizpideak balio-judizioaren bidez eta formulak aplikatuz baloratuko dira.	electrónica y los criterios de adjudicación serán aquellos a valorar mediante juicio de valor y mediante la aplicación de fórmulas
Esleipen berria arautuko duten baldintza ekonomiko, administratibo eta teknikoak kontuan hartuta, proposatzen da	Teniendo en cuenta las Condiciones Económico-Administrativas y Técnicas que regirán la nueva adjudicación, se propone
Ebazpena/ Resolución:	
Lehenengoa.- ONARTU, Erabilera-anitzeko Eremuaren Erabilera eta Kudeaketaren Zerbitzu-Emate bidezko kontratazio espedientea, eta dagokion gastua 254.696,01 euro/urtean (+%4 BEZ) 4 urteetan 509.392,02,- euro (+%4 BEZ) , prozedura irekieraren eta lizitazio elektronik bidez esleituko dena, dagokion deialdia luzatuz.	Primero.- APROBAR el expediente de contratación por Prestación de Servicios y gasto correspondiente 254.696,01 (+4% IVA) a 2 años 509.392,02, - euros (+4% IVA) del servicio de gestión del zentro polivalente mediante apertura de procedimiento y licitación electrónica la que se adjudique, prorrogando la correspondiente convocatoria.
Bigarrena.- ONARTU, Erabilera-anitzeko Eremuaren Erabilera eta Kudeaketaren Zerbitzu Emate kontratua eraenduko dituen, baldintza ekonomiko-administratibo eta baldintza teknikoen pleguak, hainbat esleipenerako irizpide erabiliko direlarik.	Segundo. – APROBAR los Pliegos de Condiciones Económico-Administrativas y de Prescripciones Técnicas que regirán el Contrato de Prestación de Servicios de Uso y Gestión del Centro Polivalente, con arreglo a diversos criterios de adjudicación.
Hirugarrena.- Alkateari eskuordetza eman, kontratazioa aurrera eramateko behar diren tramite guztiak egiteko.	Tercero.- Delegar en el Alcalde la contratación de aquellas para la realización de todos los trámites.

Ekainak 28, LGTBIQ+ Kolektiboaren Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren Nazioarteko Eguna dela eta Mendaroko Udalak honako adierazpen instituzionala onartzen du:

Ekainaren 28an, LGTBIQ+ Kolektiboaren Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren aldeko Nazioarteko Egunean, aniztasunetik eskubide eta bizikidetzarekin dugun konpromisoa berresten dugu, kolektibo horren eskubide eta askatasunen aitortzan lortutako aurrerapenak ospatuz. Jardunaldi hau ez da ospakizuna bakarrik, egindako bidea eta oraindik benetako berdintasuna lortzeko egin behar den lana gogoraraztea ere bada. Funtsezkoa da injustziaren aurrean ahotsa altxatzea eta gizarte bidezkoagoa, inklusiboagoa eta aniztasuna errespetatzen duena eraikitzen laguntzea.





Ekintza kolektiboaren bidez bakarrik egin ahal izango dugu aurrera aldaketa erreal, sakon eta iraunkor baterantz, norbanakoaren konpromisotik hasi eta politika publikoetaraino. Badakigu azken urteotan sexu- eta genero-aniztasunaren onarpena handitu egin dela, eta aurrerapen hori hainbat pertsona, elkarte, erakunde, kolektibo eta erakunderen etengabeko lan konprometituari esker lortu dela, hainbat esparrutatik kontzientziak ikusarazten, sentsibilizatzen eta eraldatzen lagundu baitute. Prozesu horretan, euskal gizarteak erakutsi du gai dela aurrera egiteko, oztopoak hausteko eta guztiontzako askatasun-eremuak irekitzeko. Gaur egun harrotasunez esan dezakegu gizarte bat eraikitzen laguntzen ari garela, non pertsona bakoitza izan daitekeen eta bizi daitekeen armairurik eta loturarik gabe, aurreiritzirik, estigmatik eta beldurrik gabe.

Baina badakigu oraindik bide luzea dagoela egiteko. Babes-keinu bakoitza, ikusgarritasun-ekintza bakoitza, LGTBIQ+ eskubideen aldeko hitz bakoitza funtsezko urratsa da lortutako lorpenak sendotzeko eta aurrera egiten jarraitzeko. Ekainaren 28a ez da oroitzapenezko data bat bakarrik, ekintzarako premiazko deia baizik. Berdindutik giza eskubideekin dugun konpromisoa berresten dugu, eta herritar guztiak ausardiaz jokatzera, gorrotodiskurtsoen aurrean isilik ez egotera eta edozein indarkeria, diskriminazio edo eskubide-urraketa salatzea animatzen ditugu. Berdintasuna eta askatasuna ezin dira negoziatu.

Horregatik guztiagatik, herritar guztiak sentsibilizazio- eta aldarrikapen-ekitaldietara batzea gonbidatzen ditugu, LGTBIQ+ pertsonen eskubideen defentsa eta sexu- eta genero-aniztasunaren aldeko borroka euskal gizartearen identifikazio-elementu izan daitezen.

Azkenik, gogorarazi nahi dugu LGTBIQ+ eskubideen aldeko borroka herritar guztien erantzukizuna dela. Ezin dugu onartu gorrotoa eta intolerantzia nagusitzea. Gaur, inoiz baino gehiago, gure aniztasunean bat egin behar dugu, elkarrekin eraikiz eta lan eginez, etorkizunean pertsona guztiok duintasunez, errespetuz eta askatasunez bizi gaitezen.

Alde	Bozketa mota/ Tipo de votación: Ahobatez
B) KONTROL-JARDUERA	
Alkatetzaren ebazpenak	

Alkatetza ebazpenen berri ematen da.

C) GALDE-ESKEAK
<p>Nerea Isasik galdetzen du Santa Anajaietako omenduak eta txupinazoa botako dutenen izenak erabakita ote dauden. Borja Rodriguezek erantzuten dio oraindik ezetz. Zortzi aukera daudela eta Jai batzordeak aste honetan erabakiko duela.</p> <p>Bestalde, Isasi andereak jaietan eraso sexisten aurkako protokolorik ote dagoen galdetzen du. Tabernetakao eta txoszneta arduradunak jakinaren gainean egon beharko dutela.</p> <p>Horretaz gain, herritarrek eraso baten aurrean nola jo behar duten jakain behar dute.</p> <p>JAsota geratzen da eta hala egingo dela erantzuten da.</p>





**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA/ DOCUMENTO FIRMADO
ELECTRÓNICAMENTE**

Baliozkotze Kod.: 7YKJLAPCLW6WXD47MDDGJSJSE
Egiazapena: <https://mendaro.equitzaelektronika.eus/>
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 8

Mendaroko Udala

Herriko enparantza, 1, Mendaro. 20850 (Gipuzkoa). Tfnoa. 943033282. Fax: 943033281

